



IZARRAITZ IGERI ELKARTEA (Zuzendaritza Batzordea)

Gurasoentzat oharra:

COVID-19ak sortutako egoera bezezi honetan, Izarraitz Igeri Elkartea osatzen dugunok lanean jarraitzen dugu zuen seme-alabek ahalik eta baldintza hoberenetan igeriketaz gozatzen jarrai dezaten. Nahiz eta hurrengo hilabeteek zein norabide izango duten inork ez dakien, 2020-2021 denboraldiaren antolakuntza eta plangintzarekin hasi gara eta ohar honen bidez, egingo ditugun berrikuntza nagusien berri eman nahi dizuegu.

Alde batetik, pertsona bakoitzak izango dituen asteko sesio kopuruan aldaketa batzuk egingo ditugu igerilarien garapen egokia sustatzeko asmoz. 2014 eta 2008 urteen artean jaiotako umeen sesio kopuruak hauek izango dira:

- 2014 eta 2013an jaiotakoak (pre benajminak): 2 sesio**
- 2012an jaiotakoak (benjaminak): 3 sesio**
- 2011an jaiotakoak (benjaminak): 3 sesio**
- 2010ean jaiotakoak (benjaminak): 3 sesio**
- 2009an jaiotakoak (alebinak): 4 sesio**
- 2008an jaiotako mutilak (alebinak): 4 sesio**
- 2008an jaiotako neskak (pre infantilak): 5 sesio**

Bestalde, kategoria bakoitzerako talde kopuru jakin bat eskeiniko dugu, bakoitza bere ordutegiarekin eta gehieneko igerilari kopuru batekin. Erabaki honekin, gaur egun talde batzuetan gertatzen den gehiegizko ume kopurua ekidin nahi dugu, sesio bakoitza ahalik eta aprobetxagarriena izan dadin. Hurrengo egunetan helaraziko dizkizuegu igerilarietako eskuragarri izango dituzten ordutegiak, izena ematen joan zaitezten.

Aldaketa hauek, dauzkagun baliabideak ahalik eta ondoen kudeatzeko, entrenamenduen kalitatea bermatzeko eta igerilarietako ikasketa prozesu egoki bat izan dezaten egin ditugu.

COVID-19ak izango duen garapenaren aurrean, erabaki gehiago hartzen joango gara eta izango dituzue beraien berri.

Besterik gabe, jaso esazue agur bero bat Izarraitz Igeri Elkartetik eta animo, laister izango gara eta uretan.

Aupa Izarraitz!!